

Funtsezko baliabideak

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko badira hainbat baliabide funtsezkoak eta beharrezkoak direnak, gure helburuak bete ahal izateko eta enpresan epe luzerako iraunkortasuna bermatzeko balio dutenak. Alde batetik, beharrezkoak dira finantza-baliabideak, hau da, kapitala eta bereziki diru-sarrerak. Diru-sarrera horiek gure jarduerak aurrera eramateko oinarri ekonomikoak izango dira, eta gure proiektuan garapena eta jarraikortasuna bermatzeko nahitanahiezkoak. Horiek ere gure proiektuaren arrakasta neurtzeko balioko dute, izan ere, ondo gestionatutako finantzek gure helburuak betetzen ari garela adierazten dute.

Bestalde, gure produktua ekoizteko eta bezeroengana modu eraginkorrean heltzeko baliabide fisikoak behar ditugu; hala nola, ekoizpen-prozesua bideratzeko makinak eta tresnak, materialak eta lehengaiak eta produktu bukatuak erabiltzaileengana helarazteko garraio-elementuak. Makinak eta ekipamendu egokiak ekoizpen-prozesuaren eraginkortasuna bermatzen dute, eta horrekin batera, produktuen kalitatea eta kantitatea optimizatzea ahalbidetzen dute. Materialak, berriz, gure produktuaren osagai nagusiak dira, eta hauek eskuratzeko eta behar bezala kudeatzeko baliabideak funtsezkoak dira. [Huen artean, Don Simon, kafetegiak eta tabernak daude laranjaren azala lortu ahal izateko eta Lufe enpresa sobratutako egurra guk berrerrabiltzeko](#). Azkenik, garraio-elementuak ezinbestekoak dira gure produktuak merkatura edo bezeroaren eskura garaiz eta egoera ezin hobean iristeko.

Horrekin batera, horiek guztiak funtziona dezan, giza baliabideak behar dira. Langileak lehengaiak jasotzeko, horiek behar bezala sailkatzeko eta ekoizpen-prozesuan makinetan lan egiteko. [Hori gutxi balitz, batzuk marketinaz arduratuko dira gure sare sozialak aurrera eramanez eta gure web orriaz bezeroek produktuak erosi ahal izateko](#). Horien trebetasuna eta dedikazioa dira gure produktuei kalitatea ematen diona. Horrez gain, bazkideak ere, ez bakarrik ekarpen ekonomikoak egiteko, baizik eta enpresaren eguneroko funtzionamenduan laguntzeko eta erabakiak laguntzen hartzeko. Hauek koordinatzea eta bateratzea ezinbestekoa da.

Azkenik, ezinbestekoa da baliabide intelektuak izatea eta hauen artean zientzialariak, programatzaileak, marketineko langileak eta enpresaren sortzaileak nabarmentzen dira. Zientzialariak ezagutza eta ikerketa eskaintzen digute produktu berritzaileak garatzeko. Programatzaileak teknologia eta web-a garatzen dute, sistema eraginkorrak izateko eta bezeroek gure produktuak ikusi eta erosi ahal izateko. Marketineko langileek, berriz, merkatuaren behar eta joerak identifikatzen dituzte, eta gure produktuak edo zerbitzuak modu eraginkorrean sustatzeko estrategiak diseinatzen dituzte. Enpresaren sortzaileek ikuspegi estrategikoa eta lidergoa eskaintzen dute, helburu argiak ezarri eta enpresa norabide egokian



bideratzeko. Baliabide intelektual hauek gabe, gure enpresa aurrera eramatea ezinezkoa izango litzateke.